



**GAS FABRIKA  
A MAILA****ERRONDO PASEALEKUA Z/G**

Egilea eta data: Joaquin Lopetedi, 1889-1899

**Deskribapena**

Gas fabrikaren instalazioak hasieran San Martinen zeuden eta instalazio berriak, zabalagoak, Morlansen ezarri zituzten, Lopetediaren 1889ko proiektuaren arabera. Instalazio horiek zenbait eraikin biltzen zituzten (arazketakoa, destilaziokoa, etab.). Horiek, zati batean, hurrengo urteetan eraikitzen joan ziren. 1899an, garai hartan fabrika horretan instalatutako gasomotorrak hornitutako elektrizitateari esker zeukan Donostiak argiteria elektrikoa. Honako elementu hauek dira babesaren xede: 800 m<sup>3</sup>-ko gasometroa (lehen proiektuan agertzen da jadanik), gasa elektrizitate bihurtzen duen gasomotorra, horri dagokion makineria osagarria, eta berori hartzen duen eraikina, sorkuntza elektrikoko zentrala zena. Gasometroa Lyonen eraikitako eta 1890ean instalatutako andela da. Metalezko upel bat da, errematxatutako junturen eta engranajeen egitura duena, dagozkion gida tangenzialez gainera; eta egungo kokapenetik lekualda daiteke. Sorkuntza elektrikoko zentralaren eraikina, gasomotorra hartzen duena, 1908an eraiki zuten. Gaur egun, bulegoen eraikina eta laborategien eraikina ditu alboetan. Jatorrizko makineriaren berezko interesaz gainera, eraikina nolabaiteko kutsu monumentalaz diseinatu zuten. Barruko instalazioek nahiko dimentsio handiak dituzte: 24 x 14 x 8,5 metro. Altuera horren azpian, garabi zubi zaharra dago. Tamaina alde batera utzita, eraikinaren irudia XIX. mendearen lehen erdiko aldi neoklasikoari dagokio. Kutsu klasiko nabarmena du arkuterian eta alboko erlaitzean, bai eta fatxada nagusiko pinoi horman ere. Eraikin honen erreferentziatzako eredia nabe tenpluarena da; hau da: bakanduta kokatzeko gai den bolumena, bere baitan bukatutakoa.

**Babes erregimena**

- \* Erregimen orokorra:  
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- \* Berariazko erregimena:  
Kultura ondasun gisa, monumentu kategoriaz, kalifikatu izanaren ondoriozkoa, abenduaren 26ko 290/2002 Dekretuaren bidez (240. EHAA, 2001-01-23koa).
- \* Eragindako ingurunea: adierazitako dekretuan ezarritakoa.